

Autoebaluazioa

1. Galdera:

Merkataritzako usadioak funtzio integratzailea duela esaten denean, esan nahi da:

- a) kontratu batean alderdien eskubide eta obligazioen edukia osatzeko erabiltzen direla.
- b) enpresarien ohiturak lehentasuna dutela beraien arteko harremanak antolatzekoan.
- c) legeak esaten duena ulertzeko erabiltzen direla.
- d) kontsumitzaile eta enpresarien integrazioarentzako erabiltzen direla.

2. Galdera:

Donostiako enpresa batek salerosketa kontratu bat egiten badu Libanoko enpresa batekin, kontratu hori:

- a) Espainiako legeen arabera arautuko da
- b) Bi kontratu kideek aukeratzeko duten legearen arabera arautuko da
- c) Europar zuzenbidearen arabera arautuko da
- d) Emandako erantzun guztiak gaizki daude

3. Galdera:

Enpresari persona fisikoa:

- a) Gaur egungo trafiko ekonomikoaren protagonista nagusia da.
- b) Merkataritzako Erregistroan inskribatu behar da derrigorrez, bestela, egindako kontratuek ez dute eraginik izango.
- c) Ezkonduta badago irabazpidezko eraentza aplikatuko zaio eta ezkontzaren harreman ekonomikoei.
- d) Jarduteko gaitasuna izan behar duen persona da, eta izan propioan garatu behar du merkataritza.

4. Galdera:

Konstituzioaren 38. artikuloren arabera:

- a) enpresari izateko enpresa kudeaketarako ikasketak egin behar dira.

- b) edozein izan daiteke enpresari.
- c) espainiar nazionalitatea behar da Espainian enpresari bezala jarduteko.
- d) enpresari izateko merkataritzako erregistroan inskribatzeko beharra dago.

5. Galdera:

Merkataritzako kodearen arabera abokatu bat:

- a) ez da merkataria.
- b) merkataria da sozietate bezala antolatzen bada.
- c) merkataria da zerbitzu profesional bat ematen duelako.
- d) kodeak espreski ez du honi buruz ezer esaten.

6. Galdera:

Enpresariaren erantzukizuna:

- a) mugagabea da beti.
- b) mugatu daiteke edozein sozietate bat eratuz.
- c) enpresaren ondarrera mugatzen da.
- d) mugatu daiteke etxebizitza hartzekodunen eskuetatik kanpo uzteko.

7. Galdera:

Merkatari pertsona fisikoa ezkondu dagoenean:

- a) ondasunen banantze eraentzak antolatu behar ditu bikotearen harremanak familia babesteko.
- b) kapitulazioak egin behar ditu bere bikotearekin.
- c) beti erantzungo du bere enpresaren hartzekodunen aurrean bere ondasun propioekin eta merkataritzatik eratorritakoekin.
- d) ez du erantzuten bere familia babestua geratu dedin.

8. Galdera:

Erregistroaren orri pertsonalaren printzipioak esaten du:

- a) pertsona fisikoak direla inskribagarriak diren persona bakarrak.
- b) Erregistroa antolatzen dela subjektu inskribatuen arabera.
- c) Erregistroa egintza inskribagarrien arabera antolatzen dela.
- d) Enpresariak Erregistroan beraien jaduerari buruzko edozein egintza inskribatu dezaketela.

9. Galdera:

Esan, hurrengo esaldien artean, zein den faltsua:

- a) Merkatal Erregistro Zentralaren funtzio garrantzitsuena enpresarien liburuen legalizazioa da.
- b) Banakako enpresariaren inskripzioa borondatezkoa da orohar.
- c) Sozietateen inskripzioa derrigorrezkoa da.
- d) Merkataritzako Erregistroan utzi behar dira gordailuan kapitalezko sozietateen urteko kontuak.

10. Galdera:

Erregistroaren printzipio batek esaten du, behin dokumentu bat inskribatu ondoren ezingo dela beste bat inskribatu data berdinarekin edo aurreko batekin, azken honen edukia eta inskribatutakoarena kontrajarriak badira. Zein da printzipio hori?

- a) Legitimazio printzipioa.
- b) Lehentasun printzipioa
- c) Aurretiazko inskripzioaren printzipioa.
- d) Ez dago horrelako printzipiorik

11. Galdera:

Erregistroan inskribatzen dena aurkajargarria dela esatean esan nahi dugu:

- a) edozein interesatuk aurkatu dezakela dagokion auzitegian.
- b) enpresariak ezingo duela aldatu ez bada epailearen aginduz.
- c) enpresariak edozein momentutan aldatu dezakeela.
- d) mundu guztiak ezagutzen duen informazioa dela presumitu behar dugula.

12. Galdera:

IFRS edo NIIF bezala ezagutzen diren arauak:

- a) enpresa guztiek kontabilitatea eramaterakoan jarraitu behar dituzten arauak dira.
- b) Estatu Batuetan kokatzen diren enpresek bete beharreko arauak dira.
- c) erakunde pribatu batek proposaturiko arauak dira, kasu batzuetan arau juridiko bihurtu direnak
- d) zuzenbide komunitarioaren barnean kokatzen diren arauak dira.

13. Galdera:

LICA delako liburuak:

- a) enpresan egiten diren kontratu guztien berri ematen du.
- b) urte kontuak jasotzen ditu.
- c) enpresak izandako irabazi edo galerak aztertzen eta azaltzen ditu.
- d) enpresari batzuei beraien kontabilitatea modu ordenatu batean eramateko balio die.

14. Galdera:

Irabazi galeren kontua:

- a) enpresaren dokumentu garrantzitsuena da, berak esaten baitu enpresak urte bakoitzean galerak edo irabaziak izan dituen.
- b) enpresariak Ogasun Publikoan aurkeztu behar duen dokumentua da.
- c) enpresariak eman dezaken nahibadako dokumentua da.
- d) ekitaldiaren emaitza ematen duen dokumentua da, balantzearen pasiboan ere agertuko dena.

15. Galdera:

Kontabilitatea egiterakoan enpresariak errespetatu behar duen printzipio garrantzitsuenada:

- a) balorazio bananduarena
- b) salneurri historikoarena
- c) irudi zintzoarena
- d) arrazoizko balioarena

16. Galdera:

Urteko kontuen egiaztapena:

- a) enpresari guztiek urtean behin egin behar duten zerbeit da.
- b) kapitalezko sozietate guztien obligazioa da.
- c) epaile batek agintzen duenean egingo da.
- d) Kapitalezko sozietate batzuren obligazioa da.

17. Galdera:

Enpresa baten gerentea:

- a) enpresaria da.

- b) langile bat da.
- c) langile berezi bat da, enpresa ordezkatzeko baitu.
- d) enpresaren pertsona garrantzitsua da.

18. Galdera:

Gerenteak bere izenean kontratatzen duenean:

- a) kontratuak ez du balio juridikorik.
- b) erantzukizun pertsonala izango du kontratukidearekin.
- c) enpresariak kontratua berretsi arte, kontratu hori esekita geratuko da.
- d) enpresari bilakatzen da.

19. Galdera:

Faktore edo gerente nabarmena:

- a) guztiek ezagutzen dutena da.
- b) Merkataritzako erregistroan inskribatu dena da.
- c) Merkataritzako erregistroan inskribatu ez dena da.
- d) gerente independentea da.

20. Galdera:

Faktore edo gerenteak:

- a) autonomiaz jarduten du eta ez da enpresari ordezkatuaren egituran integratzen.
- b) enpresariaren jardueraren sektore batetaz arduratzen da.
- c) enpresariaren ahalordea du enpresaren trafiko guztiaz arduratzeko.
- d) ezin du enpresariaren izenean kontratatu ez bada bere adostasun espresuarekin.

Emaizak:

a, d, d, b, d, d, c, b, a, b, d, c, b, d, c, d, c, b, c, c.